

**“EAEko GAZTEEN ENPLEGAGARRITASUNA ETA LAN-MERKATURA SARTZEA EUROPAKO
ESKUALDEKO IKUSPUNTU KONPARATZAILTIK” AZTERLANA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA**

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honek hizpide duen kontratuaren xedea da “EAEKO GAZTEEN ENPLEGAGARRITASUNA ETA LAN-MERKATURA SARTZEA EUROPAKO ESQUALDEKO IKUSPEGI KONPARATZAILTIK” izeneko azterlana egiteko beharrezko zerbitzu profesionalak kontratatzea. Azterlan hori oinarritzat hartuko du Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere ekimenez arlo horren gaineko txosten bat egiteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legeak 3.d) artikuluan erakunde horri onartzen dion funtzioaren barruan.

Egin beharreko lanaren baldintza teknikoak, helburuak, edukia eta metodologia espedientean jasotako Agindu Teknikoen Agirian azaldu dira.

2.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan jasotako kontratua administratiboa da eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak - Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzekoak- eta hura garatzeko xedapenek arautuko dute; horiez gain, administrazio zuzenbideko gainerako arauak eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak ere aplikatuko dira.

Administrazio klausulen agiri honek, agindu teknikoan agiriak, proposamen ekonomikoa eta erantsitako gainerako dokumentuak kontratu izaera izango dute. Kontratuak plegu honen edukari lotuko zaizkio, eta haren klausulak kontratuen partetzat joko dira.

Kontratua, erantsitako dokumentuak, edo administrazioak hitzartutakoa betetzeko ematen dituen jarraibideak, pleguak edo bestelako arauak ez ezagutzeak ez du kontratista haiek bete beharretik askatuko.

Plegu hau eta kontratuko gainerako dokumentuetako edozein bat ez baletoz, Administrazio-klausulen plegua nagusituko da, bertan baitaude kontratuko alderdiek onartutako eskubideak eta betebeharrak.

3.- LIZITAZIO-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Agiri honetan bildutako lan guztietarako, 38.000 euroko aurrekontua izango da gehienez, BEZik gabe (% 21ekoa).

Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz ematen den hori izango da, eta BEZa aparteko partida batean sartuko da.

Kontratuaren prezioaren barruan sartutzat emango dira aplika daitezkeen era guztietako zergak, tasak eta kanonak, bai eta adjudikaziodunak plegu honetan jasotako betebeharren ondorioz izaten dituen gastu guztiak ere.

4.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Honako hauek dira kontratatzeko ahalmena dutenak: pertsona fisiko eta juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak, jarduteko erabateko gaitasuna dutenak eta plegu honetan ezarritakoaren arabera kaudimen

ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen dutenak, eta kontratuaren helburuari dagokion gaikuntza profesionala dutenak.

Halaber, ez dute SPKLTBko 60. artikuluan adierazitako galarazpenik izan beharko eta kaudimen ekonomiko, finantzarioa eta teknikoa frogatu beharko dute, SPKLTBko 74., 75. eta 78. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kontratuak egiteko, enpresariak gutxieneko kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte, eta horren ostean eskatutako agirien bidez honako hau frogatu beharko dute:

4.1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

Bide hauetako bat edo hainbat baliatuta egiaztatu ahalko da:

- Finantza erakundearen txostena, edo, hala badagokio, lizitatuzaileak arrisku profesionali aurre egiteko kalte-ordain aseguru bat baduela ziurtatzen duen agiria.
-
- Enpresak azken hiru urteetan egindako lanaren guztizko negozio kopuruari buruzko aitorpena.

4.2. Kaudimen teknikoa edo profesionala

Kaudimen tekniko edo profesionala lizitatuzailearen ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna kontuan hartuta baloratuko da. Kaudimen hori honela egiaztatuko da:

- ❖ Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbat kostatu diren, noiz egin diren eta zein entitatek kontratatu dituen adierazita.
- ❖ Enpresaburuaren eta zuzendarien eta, bereziki, kontratua burutzeko arduradunen titulu akademikoak eta profesionalak. Azken horiek Curriculum Vitae ere aurkeztu beharko dute. Arestian aipatutako guztiaz gain, kaudimen tekniko eta profesionalaren gutxieneko baldintza da kontratua egikaritzeko gutxienez hiru pertsona hura burutzeaz arduratzea:
 - Proiektuaren zuzendari bat, gutxienez 10 urteko esperientzia profesionala duena.
 - Senior aholkulari bat, gutxienez 7 urteko esperientzia profesionala duena.
 - Junior aholkulari bat, gutxienez 3 urteko esperientzia profesionala duena.
- ❖ Lantaldearen barne kohesioa eta koordinazioa.

5.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Lizitazio hau publikitate dun prozedura negoziatuaren arabera egingo da, SPKLTBko 170 eta 174. artikuluei jarraituz.

6.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Eskaintzak EGABen egoitzan aurkeztu beharko dira (Kale Nagusia, 81, 7.a, 48011 Bilbo), 2015eko azaroaren 23ko 12:00ak baino lehen (EGABen irekiera ordua jendearentzako: 8:30). Agiriak azterlanen eta proiektuen arduradun Leire Ozerin Etxeberria andeari igorri beharko zaizkio, eta harengana jo ahalko da edozein zalantza argitzeko ere.

Enpresek eskaintzak hiru gutun-azal itxitan aurkeztuko dituzte: 1, 2 eta 3 izenekoetan. Horietako bakoitzean, barruan zer duten (ondoren adieraziko den bezala) eta lizitatuzailearen izena zein den adieraziko da.

1. gutun-azala: Honako hau idatziko da: "Agiri orokorrak", eta honako agiri hauek izango ditu:

1.- Lizitatzaillearen nortasunaren egiaztatzea:

- a. Lizitatzaillearen nortasun agiria (notarioak egiaztatutako fotokopia), pertsona fisikoen edo banako enpresaburuen kasuan.
- b. Enpresaburua pertsona juridikoa bada, Merkatu Sozietatearen eratze eskritura, Merkatu Erregistroan behar bezala inskribatua, edo eratze agiriak, estatutuak edo fundatze egintza, dagokion erregistro ofizialean inskribatutako jarduerari buruzko arauak azaltzen dituztenak, eta legezko ordezkariaren nortasun agiria.
- c. Ahalmen eskrituraren kopia, beste norbaiten ordezkari gisa jarduten bada, bai eta haren nortasun agiriaren fotokopia egiaztatua edo notario lekukotza ere. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, ahalorde hori Merkataritzako Erregistroan egon beharko da inskribatuta.

2.- Hala badagokio, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta lizitazioaren unean ordainduta edukitzea legez exiji daitekeen urtealdi / aldiko ordainagiria. Zerga ordaintzera behartuta ez badago, halako betebeharrak ez duela dioen aitorten erantzulea.

Hala badagokio, Jardueraren Alta/Hasieraren Errolda Aitorpena (Zerga Agentzia).

Lizitatzailleak **Eusko Jaurlaritzaren Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria** aurkezten badu, ez du aurkeztu beharko 1. eta 3. idatz-zatien artean adierazitako nortasunari eta ordezkariari buruzko agiririk, baldin eta ordezkariak aurkeztutako agirietan agertzen den berbera eta kontratuko jarduera berbererako bada.

Eusko Jaurlaritzaren Kontratisten Erregistroko ziurtagiriarekin batera, lizitatzaillearen aitorten erantzule bat aurkeztu beharko da, hor agertzen diren inguruabarrak ez direla aldatu dioena.

4.- Estatuko, erkidegoko eta udalerriko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria edo aitortpena. Adjudikaziodun proposatua izanez gero, lizitatzailleak konpromisoa hartuko du baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko.

5.- Lizitatzaillearen aitorten erantzulea, adieraziz ez daukala SPKLTBko 60. artikuluan kontratatzekeo zerrendatutako galarazpenik ezta indarrean dagoen legedian aurreikusitako bestelako galarazpenik.

6.- Kontratistaren fax zenbakia edo helbide elektronikoa, ebazpenen eta kontratazio espedientearekin zerikusia duten ebazpenen eta gainerako egintzen jakinarazpenak jasotzeko.

7.- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko duela egiaztatzen duten agiriak, plegu honetako 4,1. eta 4,2. puntuetan ezarritakoaren arabera.

2. gutun-azala: Honako inskribapena izango du: "Eskaintza ekonomikoa eta teknikoa". Honako dokumentazio hau jasoko du:

Azalpen memoria bat, gutxienez honakoak dauzkana:

- ✓ Azterlanaren edukien eta erabiliko diren tresna metodologikoen eskema eta proposamena.
- ✓ Lanak nola egingo diren azaltzeko deskribapen oso bat, faseak eta horien iraupena adierazita. Oso garrantzitsutzat jotzen da, Euskadiko EGABek lanen jarraipena egin behar baitu, kapituluak amaitu eta emateko egutegia aurreikustea. Memoria horrek eranskin bat ere izango du, non kapitulu bakoitzerako erabiliko diren datuen iturriak, kontsultako materiala eta bibliografia aurreikusiko baita.
- ✓ Eskaintzan egitea proposatutako hobekuntzak *ad-hoc* epigrafe batean biltzea. Lan plangintza, azterlana egiteko gutxi gorabehera erabiliko den ordu kopuruarekin eta taldekide bakoitzak beteko dituen eginkizunen deskribapenarekin.
- ✓ Lizitatzailak kontratuaren helburua nola bete asmo duen modu egoki eta osatuan azaltzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.

3 gutun-azala: Honako inskribapena izango du: “Eskaintza ekonomikoa eta teknikoa”. Honako dokumentazio hau jasoko du:

- ❖ Behar bezala sinatuta egon eta data izan beharko du eta 1. eranskin gisa emandako ereduari lotu beharko zaio.
- ❖ Zenbakietan adierazitako zenbatekoa eta letretan adierazitakoa bat ez badatoz, azken hori nagusituko da.

7.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu hau emateko edo eman gabe uzteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

IRIZPIDEAK	ALDERDI ZEHATZAK	HAZTAPENA
Eskaintzailea eta giza taldea	Eskaintzailea. Azterlanaren gaia ezagutzea. Kontuan hartuko dira gaiari buruzko lanetan emandako erreferentziak	10%
	Giza taldea: <ul style="list-style-type: none"> Taldearen barruko kohesioa eta koordinazioa proposamena jasotzen den momentuan. Prestakuntza, gaikuntza, arduraldia. Ikertzaileak proposatutako zereginetarako egokiak izatea eta haietan jardutea 	15%
Alderdi teknikoak	Proposamen teorikoaren kalitatea: proiektua burutzeko diseinua	20%
	Proposamen metodologikoa eta jasotako helburuak bete diren maila	20%
	Lanaren antolaketa: jardueren kronograma, bilerak Euskadiko EGABekin, adituei entzuteko engaiamendu maila, epeak betetzea	10%
Proposamen teknikoaren aurkezpena	Proposamenari balio erantsia ematen dioten elementuak eta hobetzeko iradokizunak	15%
Prezioa:	Preziorik txikiena. Preziorik txikieneko eskaintzari 10 puntu emango zaizkio, eta puntu bat jaitsiko da prezio txiki horren gaineko ehuneko bi puntuko.	10%
GUZTIRA		100%

8.- KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Lanak 6 hilabete iraungo du, kontratua sinatzen denetik hasita.

Hasierako agiria emateko epea 7 egunekoa izango da, kontratua sinatzen denetik. 2. kapitulua emateko epea hilabete eta astebetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik. 3. kapitulua emateko epea bi hilabete eta astebetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik. 4. kapitulua emateko epea lau hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik. 5. kapitulua kontratua sinatu eta 5 hilabetera entregatuko da.

Amaierako txostena, hots, 1etik 5era bitarteko kapituluak jasoko dituen dokumentua, 5. kapitulua entregatu eta astebetera emango da. 1. kapitulua momentu horretan idatzi ahal izango da.

Publikoko aurkezteko dokumentua arestian aipatutakoa eta 10 egunera aurkeztuko da.

9.- PREZIOA ORDAINTEKO ERA ETA BERANDUTZEAGATIKO PENALIZAZIOAK

Prezioa modu honetara ordainduko da:

- ❖ Beste % 20, 2. Kapituluak aurkeztean eta onestean.
- ❖ Beste % 20, 3. kapituluak aurkeztean eta onestean.
- ❖ Beste % 20, 4. kapituluak aurkeztean eta onestean.
- ❖ Ordainketaren azken % 20, aurreko kapitulu guztien azken txosten bateratu eta berrikusia (hari 5. kapituluak erantsiko zaio) aurkeztean eta onestean.
- ❖ Ordainketaren azken % 20a dokumentua publikoki aurkeztea onartzen denean.

Txosten partzial bakoitzari edo azken txostenari onespena eman aurretik, EGABek oharrak bidali ahalko ditu, eta, zuzenketa edota ñabarduraren bat egin behar izanez gero, horretarako epe bat emango dio enpresa esleipendunari, adierazi den bezalaxe.

Txosten partzialak edota azken txostena aurkezteko epea betetzen ez bada ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beretzat gordetzen du dagokion txostenaren balorazio ekonomikoari atzeratu den egutegiko aste bakoitzeko % 4ko zehapena aplikatzeko eskubidea. Zehapen hori ez da aplikatuko atzerapena ezinbestez gertatu bada.

10.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontrakoa xedatu ezean, ezingo da hirugarrenekin hitzartu kontratu honi dagozkion prestazioak osorik edo zati batean egitea.

11.- LANAREN JABETZA INTELEKTUALA ETA DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresak ezin izango ditu erabili lanean lortzen dituen datuak eta agiriak, eta ezin egingo du inolako erreproduziorik eta ustiapenik baldintza teknikoan agiri honetan ezarritakoa alde batera utzita, non eta EGABek ez duen horretarako baimena idatziz ematen, azterlanaren jabetza intelektual eskusiboa harena denez gero.

Egindako lan guztia, kontratuaren xedea dena, alegia, EGABen jabetzan geldituko da eskusiboki. Hala, edozein aldaketa egin ahalko du hark edukietan, eta egoki irizten dion erabilera eman.

12.- KONTRATUA GAUZATZEA

Euskadiko EGABek eta kontratistak kontratu bat formalizatu beharko dute, dokumentu pribatuan, 15 egun balioduneko epean, esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, esleipendunak administrazio-klausulen eta klausula teknikoan agiria sinatu beharko du, non eta ez dion sinatzeari uko egiten, agirian jadanik adierazi duelako ezagutzen dituela baldintzak eta oso-osorik onartzen dituela.

13.- ADMINISTRAZIO ETA JURISDIKZIO ESKUDUNAREN ESKUBIDEAK

13,1.- Mugen baitan eta SPKLTBan adierazitako baldintzak eta ondoreak aintzat hartuta, kontratazio organoak administrazio-kontratuak interpretatzeko, hori betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, horiek interes publikoaren arrazoiengatik aldatzeko, ebazteko eta horren ondoreak zehazteko (SPKLTBko 210. artikulua) eskumena du. SPKLTBko 211. artikuluan bildutako prozedura errespetatu beharko da.

13,2.- Administrazio bideari bukaera ematen dioten erabakien aurka bidezko izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoari jarraituz. Interesdunek haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitakoa.

1. ERANSKINA: EKONOMIA-PROPOSAMENAREN EREDUA

_____ jaun/andereak, jakinarazpenetarako helbidea _____-n duenak, _____ NAN zenbakia duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaren jabe, bere izenean edo _____ ordezkatuz, _____ esleitzeko eskatzen diren baldintzak eta betekizunak ezagututa, bere izenean edo enpresa hura ordezkatuz, konpromisoa hartu du lan honi dagozkion lanak egiteko, esleipendun gertatuko balitz, indarreko araudiari eta dagozkion administrazio-klausulen eta klausula teknikoan agiriei zorrozki lotuz, guztizko zenbatekoa _____ (letraz) _____ euro delarik, jarraian adierazitako zehaztasunekin eta banakatzearekin.

BEZagatik aplikatutako zerga-tipoa _____ (%)

Zerga-oinarria _____ euro

BEZ _____ euro

ESKAINTZAREN ZENBATEKOA GUZTIRA _____ euro

Bilbon, 2015eko _____aren ____ (e)(a)n

Sin.: _____